

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZAR NAGUSIAK 2015eko ABENDUAREN 18an EGIN DUEN OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

Abartzuzako Udala
Adioseko Udala
Oibarko Udala
Ameskoabarreneko Udala
Antzineko Udala
Antsoaingo Udala
Añorbeko Udala
Agoizko Udala
Arangurengo Udala
Arbizuko Udala
Arellanoko Udala
Aresoko Udala
Artazuko Udala
Atezko Udala
Azagrako Udala
Azueloko Udala
Barañaingo Udala
Barasoaino Udala
Bargotako Udala
Basaburuko Udala
Beintza-Labaiengo Udala
Belaskoaino Udala
Berbintzanako Udala
Berriobeitiko Udala
Berriozarko Udala
Buñuelgo Udala
Caparrosoko Udala
Kasedako Udala
Castejongo Udala
Oltza zendeko Udala
Cintruenigoko Udala
Ziraukiko Udala
Zizurko Udala
Cortesko Udala
Doneztebeko Udala
Ergoiengo Udala
Eslabako Udala
Esprontzedako Udala
Lizarrako Udala
Esteribarko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezporogiko Udala
Faltzesko Udala
Funesko Udala
Garinoaino Udala
Genevillako Udala

Iruña Park Hotelean (Iruñeko Arcadio M^a Larraona kalea, 1), albo batean jasotako toki-erakundeetako ordezkariak bertan direla, hasiera eman zaio, bi mila eta hamabosteko abenduaren 18an, NUKFko ohiko batzar nagusiari arratsaldeko 17:00etan, bigarren deian. Ondorengo kideok izan dira batzarraren mahaian: Pablo Azcona Molinet jn., Raquel Garbayo Berdonces and., Francisco Javier Perez Cueva jn. eta Laura Lopez Crespo and., federazioaren presidentea, lehen presidenteordea, bigarren presidenteordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren, honakoa izanik

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- 2014/12/12ko eta 2015/10/3ko batzarren aktak onartu.
- 2.- NUKFren 2014ko kontuak onartu.
- 3.- NUKFren 2015. urteko kudeaketa-txostena onartu.
- 4.- NUKFren 2016rako jarduera-programa onartu.
- 5.- NUKFren 2016rako aurrekontua onartu.
- 6.- NUKFren idazkaritza nagusia.
- 7.- Galde-eskeak.

1. gaia.- 2014/12/12ko eta 2015/10/3ko Batzarren aktak onartu.

Deialdiarekin batera 2014ko abenduaren 12ko ohiko batzar nagusiaren aktaren, eta 2015eko urriaren 3ko ezohiko batzar nagusiaren aktaren kopia bidalita, presidentek galdetu du, aurretiaz aktak irakurri beharrik izan gabe, batzarkideren batek aktei oharren bat egin nahi ote dion.

Batzarrari eskatu zaio 2014ko abenduaren 12an egin zen ohiko batzar nagusiaren akta onartzea.

Abstentzio bakarrarekin, 2014ko abenduaren 12ko ohiko batzar nagusiaren akta **ONARTU EGIN DA**.

Batzarrari eskatu zaio 2015eko urriaren 3an egin zen ohiko batzar nagusiaren akta onartzea.

ONARTU EGIN DA 2015eko urriaren 3ko ezohiko batzar nagusiaren akta.

Goizuetako Udala
Goñiko Udala
Gesalazko Udala
Girgillaoko Udala
Uharteko Udala
Ibargoitiko Udala
Imozko Udala
Irañetako Udala
Irurtzungo Udala
Iturengo Udala
Itzako Udala
Lakuntzako Udala
Elizagorriko Udala
Leitzako Udala
Lekunberriko Udala
Lergako Udala
Leringo Udala
Ledeako Udala
Lizoainibar-Arriasgoitiko Udala
Lodosako Udala
Los Arcosko Udala
Irunberriko Udala
Melidako Udala
Mendabiako Udala
Mendigorriko Udala
Eloko Udala
Muesko Udala
Murchanteko Udala
Murillo el Cuendeko Udala
Otsagabiko Udala
Odietako Udala
Olaztiko Udala
Olexoako Udala
Erriberriko Udala
Orisoaingo Udala
Orkoiengo Udala
Iruñeko Udala
Azkoiengo Udala
Garesko Udala
Ribaforadako Udala
Erronkariko Udala
Zareko Udala
San Adriango Udala
Zangozako Udala
Sartagudako Udala
Tafallako Udala
Tebas - Muru Artederretako Udala
Tirapuko Udala
Torralba del Rioko Udala
Torres del Rioko Udala
Tuterako Udala
Ukarko Udala
Uharte Arakilgo Udala
Ultzamako Udala
Untzitiko Udala
Untzueko Udala
Urraulgoitiko Udala
Urraulbeitiko Udala

2. gaia.- NUKFren 2014ko kontuak onartu.

Presidente jaunak hitza eman dio idazkari nagusiari NUKFren 2014. ekitaldiko kontuak aurkez ditzan.

Idazkari nagusiak NUKFren aurrekontuaren kitapena aurkeztu du, 2014. ekitaldiari dagokiona.

2014. ekitaldiko kitapenaren barnean daude NUKFren beraren aurrekontua, Concejo aldizkaria eta prestakuntza-plana. Emaizta orokorrak 154.109,12 euroko superabita erakusten du.

Diruzaintzako gerakina 2014ko abenduaren 31n 1.161.523,08 euro zen.

Presidente jaunak galdetu du ea norbaitek iritzirik eman nahi ote duen 2014. ekitaldiko NUKFren kontuen inguruan.

2014. ekitaldiko NUKFren kontuak onets ditzan eskatu zaio batzarrari.

Zazpi abstentziorekin, **ONARTU EGIN DIRA** NUKFren 2014ko kontuak, eta aktari gehitu zaizkio eranskin gisa.

3. gaia.- NUKFren 2015. urteko kudeaketa-txostena onartzea.

Presidente jaunak NUKFren 2015eko kudeaketa-txostena, deialdiarekin batera banatua, aurkeztu du, eta NUKFk 2015ean garatu dituen jardueren berri eman du laburbilduta.

Presidente jaunak galdetu du ea norbaitek iritzirik eman nahi ote duen 2015. ekitaldiko NUKFren kudeaketa-txostenaren inguruan.

NUKFren 2015eko kudeaketa-txostena onets dezan eskatu zaio batzarrari.

Hiru abstentziorekin, **ONARTU EGIN DA** NUKFren 2015eko kudeaketa-txostena, eta aktari gehitu zaio eranskin gisa.

4. gaia.- NUKFren 2016rako jarduera-programa onartu.

Presidente jaunak NUKFaren 2016ko jarduera programa, deialdiarekin batera banatua, aurkeztu du, eta funtsezko hiru ardatzak azpimarratu ditu: Toki-erakundearen parte-hartzea sustatu NUKFn, gardentasunean sakondu, eta NUKFren eginkizunari buruzko hausnarketa estrategikoa.

Presidente jaunak esku hartzeko txanda bat ireki du, aurkeztutako jarduera-programaren inguruan batzarrera etorritakoek eman nahi dituzten iritziak eman ditzaten.

Ollarango Udala
Villatuertako Udala
Atarrabiako Udala
Esako Udala
Zizur Nagusiko Udala
Antzingo Kontzejua
Añezkarko Kontzejua
Arizko Kontzejua
Arlegiko Kontzejua
Artikako Kontzejua
Astizko Kontzejua
Aurizberriko Kontzejua
Aiesako Kontzejua
Barindanoko Kontzejua
Zizur Nagusiko Kontzejua
Dorraoko Kontzejua
Etxagueko Kontzejua
Eritzeko Kontzejua
Eugiko Kontzejua
Gabarderalgo Kontzejua
Iurreko Kontzejua
Iturgoiengo Kontzejua
Larraiko Kontzejua
Leazkueko Kontzejua
Lizarragako Kontzejua
Mendilibarriko Kontzejua
Muru Artederretako Kontzejua
Olloko Kontzejua
Orrioko Kontzejua
Ostizko Kontzejua
Arradako Kontzejua
Rocaforteko Kontzejua
Saratsako Kontzejua
Subitzako Kontzejua
Tebasko Kontzejua
Unanuko Kontzejua
Undioko Kontzejua
Hiriberriko Kontzejua
Zabaldikako Kontzejua
Ziako Kontzejua
Zubiriko Kontzejua
Iruñerriko Mankomunitatea
Erriberako Mankomunitatea
Jurramendiko Mankomunitatea
Zangoza eskualdeko zerbitzu-
mankomunitatea
Los Arcosko OGZen
Mankomunitatea
Izarbeibarko Mankomunitatea

Oltza zendeako alkate Garjon jaunak proposatu du energia-eragimenari buruzko talde bat, eta herritarren teknologia berriekiko erabilerari buruzko beste bat sortzea.

Olloko alkate eta NUKFko bigarren presidenteorde Perez jaunak erantzun dio Bartzelonan egon dela etxebizitzetako energia-eragimenari buruzko jardunaldi batzuetan, eta dagoeneko proposatu diola NUKFri 2016an burutuko diren jardunaldietan lankidetzan aritzea; aipatu jardunaldi horiek Iruñean izanen dira. Halaber, proposatu du NUKFren prestakuntza-planak ere gaiari buruzko hainbat prestakuntza-ekintza jasotzea.

Azkoiengo alkate Peralta jaunak NUKFri eskatu dio hirigintza-planak bideratzea errazteko eta arintzeko, eta Kontratuei buruzko Foru Legean 6.000 euroko muga igotzeko beharrezkoak diren jarduerak gara ditzala.

Cintruenigoko alkate eta NUKFko lehen presidenteorde Garbayo andreak proposatu du herri-ondasunak direla-eta zenbait partikularrek egindako eskriturengatik kaltetutako udalekin esku-hartze bateratu bat lantzea.

Undioko Kontzejuko ordezkari Miranda jaunak eskatu du sortzearen den kontzejen foroak 'atal' izaera edukitzea NUKFren barnean, estatutuetan irudi hori jasotzen baita. Horretarako, batzorde betearazlea premiari du kontzejen atala sortzera, eta bi hilabeteko epean kontzejen atalerako araudi bat sortzera, eztabaidatua izan dadin.

Halaber, Miranda jaunak LAPak berrikustea proposatu du; izan ere, horiek higiezinaren boomean landu ziren, eta Iruñerriko gaur egun errealista ez den etxebizitza-kopuru handia aurreikusten zuten.

Presidente jaunak horri erantzunez esan du dagoeneko aurreikusita dagoela kontzejen foroa, eta ondoren foro horren berak erabakiko duela nola lan egin.

Olloko alkate eta NUKFko bigarren presidenteorde Perez jaunaren iritzi, tokiko mapari buruzko lantaldeak bidea ireki beharko luke toki-erakundeek parte har dezaten. Esan du kontzejen atala sortzea konpromisoa dela.

Ribaforadako alkate Rodriguez jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuarekin organo parekide bat eratzea NUKFren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanetarako.

Presidente jaunak esan du proposamen guztiak jaso direla, eta esan du azken bururaino eramanen dituela, ahal den neurrian.

Ondoren, presidente jaunak batzarrari eskatu dio onar dezala batzarrari aurkeztu zaion 2016ko jardueraren programa.

Hamazazpi abstentziorekin, **ONARTU EGIN DA** NUKFren 2016rako kudeaketa-programa, eta aktari gehitu zaio eranskin gisa.

5. gaia.- NUKFren 2016rako aurrekontua onartu.

Presidente jaunak NUKFren 2016rako aurrekontu-proiektua aurkeztu du, eta horrek atal hauek jasotzen ditu: NUKFren aurrekontu orokorra (686.642 euro), Concejo aldizkariaren aurrekontua (49.150 euro), eta prestakuntza-planaren aurrekontua (66.000 euro); denetara, 778.792 euro.

Esan du NUKFren 2016rako aurrekontuan hiru kontu-sail berri daudela: 15.000 euroko bat, prozesu parte-hartzaileen ondoriozko gastuak finantzatzeko; 15.000 euroko beste bat, inbentarioen programa ezartzeko; eta 10.000 euroko beste bat, gerta litezkeen larrialdietarako laguntzetarako.

Presidente jaunak, halaber, jakinarazi du Lodosako alkate eta NUKFko presidente gisa 36.000 euro gordin kobratuko duela, gehi gizarte-segurantzari dagokiona; 18.000 euro, gehi gizarte-segurantzari dagokion zati proportzionala, NUKFk ordainduko du, eta beste 18.000 euro, gehi gizarte-segurantzari dagokion zati proportzionala, Lodosako Udalak ordainduko du. Presidenteari osorik Lodosako Udalak ordaintzen dio. NUKFk eta Lodosako Udalak hitzarmena sinatu dute NUKFk ezin diolako gizarte-segurantzan alta eman presidenteari. Hitzarmen horren bitartez, Lodosako Udalak NUKFri dagokion zatiaren konpentsazioa jasotzen du.

Zizur zendeako alkate Barricarte jaunak adierazi du, gardentasunari mesede egite aldera, hitzarmen hori eta horren inguruko txosten juridikoa toki-erakundeei bidali beharko zitzaiekeela.

Cintruenigoko alkate eta NUKFko lehen presidenteorde Garbayo andreak NUKFk eta Lodosako Udalak sinatutako hitzarmenari buruzko txosten juridikoa eskatu du.

Azkoiengo alkate Castillo jaunak esan du hausnartu beharko genukeela NUKFren diruzaintzako gerakinari buruz.

Arangurengo alkate Romero jaunak esan du aurrekontu berdina aurkeztu dela. Hori dela-eta, aurrekontuaren kitapenak berriro ere superbaita erakutsiko du ekitaldia ixtean. Diruzaintzako gerakinaren zati bat udalentsat eta kontzejuentsat izatea proposatu du, horetarako landutako plan estrategiko baten bidez, premiak ugariak baitira.

Presidenteak esan du erakundeari aurrera begira aurreikusten zaion jarduerak berarekin ekarriko dituela kontu orekatuagoak.

Ondoren, presidente jaunak batzarrari eskatu dio onar dezala 2016ko aurrekontua.

111 boto aldeko izanik, **ONARTU EGIN DA** NUKFren 2016ko aurrekontua.

6. gaia.- NUKFren idazkaritza nagusia

Presidente jaunak esan du NUKFren estatutuen arabera egokia dela 2015-2019 legealdirako NUKFren organoak berritzeko prozesua bukatzea NUKFren idazkaritza nagusia beteko duen pertsona izendatuta; aipatu izendapena, NUKFren batzar nagusiari dagokio, batzorde betearazleak eginen duen proposamenaren arabera.

Xede horretarako batzorde betearazleak proposatu du NUKFren batzar nagusiak onartzea NUKFko aholkulari juridiko Berta Enrique Cornagoren izendapena NUKFren idazkaritza nagusiko kargurako eta 2015-2019 legealdirako, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzin.

Presidente jaunak galdetu du ea norbaitek iritzirik eman nahi ote duen proposamenaren inguruan.

Ribaforadako alkate Rodriguez jaunak galdetu du nola geratu diren NUKFko zerbitzu juridikoak.

Presidente jaunak esan du zerbitzu juridikoak sendotu egin beharko direla.

Arangurengo alkate Romero jaunak galdetu du nola beteko diren beharrizan juridikoak. Eta gai bakoitzean adituak kontratatzeke, prozedura irekiak egitea eskatu du.

Presidenteak iruzkinari erantzunez esan du, hasiera batean asmoa pertsona bat kontratatzea dela, errefortzu gisa.

Halaber, Arangurengo alkate Romero jaunak eskertu ditu orain arteko idazkari nagusiak eman dituen zerbitzuak, eta esan du behar izan dugun guztietan arreta egin digula.

Idazkari nagusiak eskertu egin ditu Romero jaunaren hitzak.

Ondoren, presidente jaunak batzarrari eskatu dio onar dezala NUKFko idazkari nagusiaren izendapena.

Bozketak lau boto aurka eta hamabi abstentzio jaso ditu; hortaz, **ONARTU EGIN DA** Berta Enrique Cornago izendatzea NUKFko idazkari nagusi 2015-2019 aldirako, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzin.

7. gaia.- Galde-eskeak

Presidente jaunak esku-hartze txanda bat ireki du bertan direnek galderak edo proposamena egin ditzaten.

Etxauriko alkate Aritzala andreak galdetu du ea NUKFk aztertu ote duen banka etikoko erakunderen batekin lankidetzan jardutea. Presidente jaunak erantzun dio urte hasierarako bilera bat egin asmo dutela halako erakunderen batekin.

Undioko Kontzejuko presidente Miranda jaunak NUKFri eskatu dio kontzejuei bideratutako zerbitzu juridikoak martxan jartzea, espedienteetan lehenengo txostenak burututa.

Etxagueko presidente Recalde andreak deklarazio bat proposatu du, NUKFk Konstituzioko 135. artikulua aldatzeko legea eta xedapen hori garatzen duten legea kentzea eska dezan.

Arangurengo alkate Romero jaunak esan du alkate guztiak egongo direla ados proposamenarekin, egonkortasunaren araudi berriak toki-erakundeei dakarzkien kalteengatik.

Sortutako eztabaida dela-eta, Artazuko alkate Albizu jaunak euskaraz hartu du hitza (aldibereko itzulpen-sistema erabili da); hurrengo batzarretan eguneko gai-zerrendatik kanpoko akordioak edo mozioak hartzea ebazteko eskatzeko.

Presidente jaunak Etxagueko presidente Recalde andrearen proposamenari erantzunez, honako hau jarri du batzarraren iritzipean: “Eskumena duten botere publikoei helaraztea CEko 135. artikulua eta 2/2012 eta 27/2013 Legeen aldaketa bertan behera utzi beharra dagoela, toki-erakundeek eskumenak kudeatzeko eta emateko duten gaitasuna mugatzen baitute”.

Hogei abstentzio jasota, **ONARTU EGIN DA** aurkeztutako proposamena.

Eloko alkate Zozaya andreak tokiko maparen erreformaren tramitazioaren egoeraz, Toki Ogasunen Funtzaren egoeraz, eta NUKFren iheslarietako jardueraz galdetu du.

Oloko alkate eta NUKFko bigarren presidenteorde Perez jaunak esan du laster egingen dela bilera bat GGKEen koordinakundearekin, gai horren inguruan udalen eta kontzejuen jarduerak hobetze aldera.

Presidente jaunak Toki Ogasunen Funtzaren egoerari eta Transferentzia Arrunten Funtzari buruzko lege aldaketaren inguruko informazioa eman du, KPI gehi bi puntuko igoera ahalbidetu baitu. Halaber, esan du berme-klausulak kaltetzen dituen toki-erakundeen egoera hobetzea ere eskatu dela.

Azkenik, Presidente jaunak Gizarte Eskubideetako presidenteordearekin izandako bileraren berri eman du, eta halaber, NUKFko bigarren presidenteordeak kudeatzen duen iheslarien gaia aztertzeko GKEen koordinakundearekin bilera egin asmo dela adierazi du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemerretziak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Laura López Crespo and.